

Udazkenean udaberria loratuz

Emozioak, gogoetarako uneak eta barre-algarak ia bi orduz kultur etxean, 'Udaberriko bertso saioa udazkenean' emanaldian / 5

TXINTXARRI

Eritasunari aurrea hartu ezinik

COVID-19 iraunkorra duela susmatzen duen Bego Toquero herritarren bizipenak bildu ditu TXINTXARRI-K / 8-9

Lasarte-Oriako ostalariak protesta ekintzak egiten ari dira euren egoera larria ikusarazteko / 2

Larrosa zurien eskaintza, bost minutuko isilunea eta adierazpen bateratua, Memoriaren Egunean / 3

Euskaraldian izena emateko azken egunak: herrian, orain arte, 1.051 'ahobizi' eta 356 'belarriprest' daude / 4

Irungo Udalak aurten martxan jarritako Iñigo Muguruza beka irabazi du Asier Suberbiola biolinistak / 6-7

Korrikalari afizionatuak lasterketa denboraldi betean egon beharko lirateke / 10-11

Euskaraldian izena emateko diptikoa aurkituko duzu erdiko orrietan sartuta



BLACK FRIDAY

%20

ko **DESKONTUA**
produktu guztietan

+ MONTURA DOAN zure betaurreko graduatuetan

2020/11/30era arte baliogarria .Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 17/5/15 I.L.G.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   

Ogibideak itxita, aurrera nola hala egiten ari dira

Ostalariak jasaten ari diren egoera kritikoa salatzen manifestazio egin dute azaroaren 7an. Aste honetarako ere egin dituzte protesta deialdiak; gaur kontzentrazioa egingo dute udaletxe aurrean 12:00etan, eta bihar, berriz, kazerolada 12:30ean taberna atarrietan

Txintxarri

Kaleek ezohiko itxura dute azaroaren 7tik. Itxitako atekak, jasotako mahai eta aulkiak, jaitzitako pertsiak... Plazan egun horretako manifestazioa hasteko zain zeuden ostalarien grabazioa urrutitik entzuten zen, bereziki isilik dauden kaleetan. Bertako sirena hotsak bestelako testuinguru beldurgarriagoak iradoki zizkien batzuei. Ez protesta egitera elkartu zirenei, ordea. Haien bizi dutenak nahikoa izu eragiten baitie.

Herriko ostalaritzaren heriotza irudikatu zuten manifestazio buruaren aurretik bidea egin duten hiru hil kutxekin. Gaietan, gaztelaniaz idatzita, "Ostalaritza 2020. Goian bego. Lasarte-Oria" zioen eskela moduko afixa beltza zuten. Mezu errepikatuen, hala ere, hizki gorritz idatzitako SOS Ostalaritza izan zen. Kamiseta beltzetan, mantal berdeetan eta pankartan ageri zen.

Okendon hasi eta amaitu zen mobilizazioarekin ehunka lagunek bat egin zute, eta bereziki jendetsua izan zen plazara buelta. Bidean, Urkulluren aurkako oihuak eta ostalaritzaren aldekoak entzun ziren, besteak beste. Herritar batzuek txalo egin zieten bide ertzetik, babesa erakutsiz; eta eskerrak jaso zituzten erantzun gisa. Amaieran adostutako idatzia entzuteko asmoa zuten, baina batera gabe gelditu zen bozgorailua. Horren ordez, ostalaritzaren aldeko oihu eta txaloekin amaitu zuten.

Etorkizun beltza

Haserre eta kezkatuta daude herriko ostalariak. Protesta ondorengo solasaldian azaldu zuten, sektorea egoera oso kritikoa dago, itxialdiaren ondoren baino okerrago; kolpe hartatik ateratzeko indarrak eta dirua xahutu baitituzte, buelta emateko itxaropenez. Jakin badakite, egoera luzatuz gero,

orain itxita dauden negozioetako askok ezingo dutela berriro ireki.

Lasarte-Oriako motore ekonomikoetako bat da ostalaritza, 450 lanpostu zuzen ditu. Ez dituzte beraien aurkako neurriak ulertzen, kutsatzen errudun bilakatzea, eta ironikoki galdera luzatu zuten: "Supermerkatu, merkataritza gune eta antzekoetan ez dira izan ala ezkutatu egin dituzte?".

Halaber, itxiera 24 orduko aurrerapenarekin jakinaraztea gaitzetsi zuten, are gehiago asteburu bezpera zelako eta hari begira erosketa egina zutelako. Urkullu lehendakariak erabaki hori egun batetik bestera hartzeko gaitasuna badu, diru laguntzekin gauza bera egin beharko lukeela arazoitu zuten. Eusko Jaurlaritzak azaroaren 10ean iragarri du 30 milioi gehiago bideratuko dituztela laguntza zuzenetara.

Astelehenaz geroztik, Lasarte-Oriak herri ezezaguna dirudi. Herriko tabernen giro eta hotsa



Bizitzen ari diren egoera salatzen ostalariek egindako manifestazioa. TXINTXARRI



Avenida tabernako Yon eta Liza. TXINTXARRI



Jalgik atek itxita jarraitzen du. TXINTXARRI

ia guztiz desagertu da. Eusko Jaurlaritzak agindutako neurri berriekin, zenbait ostalarik atekak itxi behar izan dituzte, eta beste batzuk, berriz, etxera eramateko zerbitzuarekin ari dira egunerokoa salbatzen. Avenida taberna-jatetxea esaterako, etxera eramateko zerbitzua eskaintzen ari da. Bertako jabe Yon Mikel Rodriguezek azaldu du gogorra izaten ari dela egoera: "Ez genekien zein aukera izango genituen ere. Orain etxera eramateko zerbitzuarekin ari

gara lanean, indarrak horretan jarri ditugu".

Jalgik Kafe Antzokiko Javi Morak txanponaren beste aldeaz hitz egin du. Ez du sukalde zerbitzurik eskaintzen, hortaz, atek erabat itxita dago. "Egoera oso zaila da, hirugarren aldiz itxi behar izan dugu, eta hontatik ateratzea oso zaila izango da; taberna asko geratuko dira bidean. Familia askori eragiten digu egoera latz honek; gure kasuan, bikotea eta biok gara tabernariak; biok gaude lanik gabe".

"Egoera saihestu zitekeen"

Dozenaka herritar elkartu dira Okendo plazan asteazken arratsaldean, Ibon Fernandez Iradi larriki gaixo dagoen euskal presoaren egoera salatzen eta horren aurrean kezka adierazteko: "Ekidin zitekeen". Esklerosi anizkoitza dauka herritarrek, eta asteon positibo eman du COVID-19aren proban. Jabi Gallaga herrikidearen berri ere eman dute; Cordobako espetxean dago preso.

Fernandez Iradik, defentsako abokatuak eta familiak behin baino gehiagotan eskatu dute herritarren zigorra etetea, pairatzen duen eritasun larri hori "baldintza egokietan" artatua izan dadin. Horretarako, ezinbestekoa da euskal preso Lannemezanezko kartzelatik (Frantzia) ateratzea. Bi eskaera egin dituzte urte hauetan, eta biak ezeztatu dituzte epaitegiek. Bigarren eskaera onartu egin zuen Parisko Dei Auzitegiak 2019ko azaroan, baina aurtengo otsailan

bertan behera utzi zuen Zigorrak Ezartzeko Frantziako Auzitegiak. Fernandez Iradiri 2013. urtean diagnostikatu zioten esklerosi anizkoitza.

Asteon COVID-19aren proba egin diote lasarteiatarrari, eta positibo eman du; sintomak dauzka eta zeldan bakartu dute. Lasarte-Oriako Sarek kontzentrazioa deitu du asteazken arratsaldean, eta dozenaka herritarrek bat egin dute ekimenarekin,

Jabi Gallagaren egunerokoa

Jabi Gallaga herritarra ia 24 urte daramatza espetxean. Cordoban daukate preso gaur egun; azken hamabost urteak isolamenduan eman ditu. Lasarte-Oriako Sareko kideek jakitera eman dutenez, duela bi aste atera dute egoera horretatik, eta lehen graduan dago gaur egun. "Ez dauka gainontzeko presoek egunerokoa burutzen dituzten jarduerak egiteko eskubiderik".



Dozenaka herritar elkartu dira Okendo plazan asteazken arratsaldean. TXINTXARRI

Bake prozesua indartzeko Foro Sozialak txosten bat aurkeztu berri du Cordobako espetxeari buruz. Gai hori eta Gallagaren egoera hizpide hartuta, mahai ingurua antolatu du Lasarte-Oriako Sarek azaroaren 21erako, larunbatez, 10:30ean, Udal Euskaltegi hitzaldi aretoan. Edukiera mugatua izango

dela zehaztu dute antolatzaileek. Mainer Galardi kazetariak eta Espetxe Politikaren Behatoki ordezkarik Teresa Todak parte hartuko dute. Hitzaldira presentzialki joaterik izango ez dutenek Palmondo Irratiaren zuzeneko emanaldia jarraitu ahalko dute, streaming bidez.

Larrosa zurien eskaintza, Memoriaren Egunean

Memoriaren Egunarekin bat eginik, ekitaldia egin du Lasarte-Oriako Udalak. Alderdi politiko guztiek adostutako adierazpen bateratua irakurtzeaz gain, bost minutuko isilunea egin dute alderdi politiko guztietako ordezkariak; lore eskaintza ere egin dute

Txintxarri

Eguraldi goibelak zapuztu du Askatasunaren parkean astearte eguerdian egin beharreko ekitaldia. Sekulako euri jasa bota du 12:00etan, eta, hortaz, udaletxe zaharraren atarira lekualdatu dute oroimen ekitaldia. Agerraldi xume bat egin dute bertan bildutako alderdi politiko guztietako ordezkariak. Adierazpen bateratu bat irakurri du lehenik Agustin Valdivia alkateak, eta bost minutuko isilunea egin dute gero. Hori amaituta, arrosa zuri bana hartu du ordezkari politiko bakoitzak, eta lore eskaintza egin dute.

"Terrorismoaren eta motibazio politikoko beste edozein motatako indarkeriaren biktimak" izan dituzte gogoan, "ahantzuran eror ez daitezen". Horrekin batera, egitarako, justiziarako, erreparaziorako eta errekonozimendurako eskubidearen aldeko lanean jarraitzeko konpromisoa agertu dute, baita berriz ez errepikatzearen alde lan egiteko ere.

Iraganeko akatsak ahazten dituen gizarteak akats horiek berririo errepikatzeak arriskua duela azaldu du alkateak



Udaletxe zaharraren atarian egin dute Memoriaren Eguneko ekitaldia. TXINTXARRI

adierazpena irakurri bitartean, horregatik, Lasarte-Oriako Udaletik, bere baitan sortutako Bizikidetzak Mahaiaren eta herritar taldearen lanen aldeko apustua egiten jarraituko dutela azpimarratu du: "Beharrezkoa den lan bat egiten segitzen dute, diskrezioz, baina modu jarraituan". Bide batez, Lasarte-Orian memoria-politika bat lantzen eta sakontzen jarraitzeko hartua duten konpromisoa berretsi dute, "beren duintasuna urratu zieten biktima guztiei errekonozimendua eta erreparazioa sustatzeko, bai eta bidegabekeria horiek

errepikatuko ez direla bermatzeko ere".

Giza eskubideen urraketaren "modu guztiak" gaitzestetik abiatuta, memoriak elkarbanatzeko eta eztabaidarako guneak sustatu behar dituztela ere nabarmendu dute: "Errespetutik abiatuta eta guztiok egiaren parte bat dugula jakinda, memoria partekatu bat eraiki ahal izan dezagun, gizarte gisa hobeak egingo gaituena eta terrorismoaren eta motibazio politikoarekin erabilitako indarkeriaren biktima guztiak errespetatuko dituen".



NEURE KABUZ
NEREA SEGURA

HiztEgia

Haragia eta barazkiak hitz berean joan daitezke? Esnea begetala izan daiteke? Bai eta ez, edo hobeto esanda, depende. Beggie mundua gorabidean dago. Osasunarekin, ingurumenarekin eta animalien babesarekin kontzientziatzeak landare-produktuen kontsumoa bultzatu du. Bere alde ona du: fruta, barazki, lekale, fruitu lehor gehiago kontsumitzea. Seguru? Egia da animalien industria mehatxatuta sentitzen dela, baina produktu prozesatuez ari garenean, interes asko daude jokoan: ekonomikoak, noski. Eta landare-industria ez da atzean geratzen ari.

Bi aldeek beren onurak alegatzen dituzte, bi aldeek beren produktuak defendatzen dituzte; argi dagoena da ez direla analogoak (ezta ezinbestekoak ere). Propietate desberdinak dituzte (mantenugaiak), teknologia desberdinak... Berdin izendatu behar ditugu? Bai, edo ez, baina erabaki dezatela. Bozketa egin ondoren (parlamentariak eta Europa mailan), "kontsumitzailea ez nahasteko", honako hau erabaki dute: landare-produktuei okela deitu ahal izango zaie (xerra, saltxitxa, hamburgesa), baina ezin izango dira esne deitu (jogurta, gazta, gurina, krema, esnegaina). Halaber, ezin izango dute aipatu osasunean edo ingurumenean izan ditzaketan onurak. Benetan? Nola justifikatzen da batzuek bai eta besteek ezin izendatzea? Gainera, ez dago araurik salbuespenik gabe: almendra eta koko esnea, kakao krema eta kakahuete gurina hala direlako. Justifikazioa? Tradizioz, horrela deritzogula. Kontuan hartu ez dutena da tradizioa sarritan kalean sortzen dela; etiketaren terminoak ezabatu ahal izango dituzte, baita hiztegiarenak ere, baina ez erabiltzaileen hizkerarenak.

Teknopolis, lanbide eskolan

Azaroaren 19an emitituko duten Teknopolis saioan, besteak beste, hitz egingo dute Usurbilgo Lanbide Eskolari buruz. "Berrikuntza nola lantzen dugun ikustera etorri dira", adierazi du eskolak. Long life batteries egitasmoaz hitz egin dute. Usurbilgo Lanbide Eskola lankidetzan ari da San Viator eta Don Boscorekin. Aztertu nahi dute ea erabiliak izan diren autoen bateriek balio duten etxebizitzetan sortutako energia gordetzeko.



USURBILGO LANBIDE ESKOLA

TXINTXARRI PUBLIZITATEA:

publizitatea@ttakun.eus
943 371 448 (106)
646 82 44 66



Geltoki kalea 4,
20160 Lasarte-Oria

DOAKO IKASTAROAK LANGILE ETA LANGABETUENTZAT

ESKAITZA IREKIKO ETA PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIREI DAGOKIEN IKASTAROAK

Astelehenetik ostegunera 18:00etatik 21:00etara

ELEKTRIZITATEA / ELEKTRONIKA

- Oinarrizko elektrizitatea
- Hidraulika
- IOT - Interneteko Gauzak: Raspberry eta Arduino

MANTENIMENDUA / ENERGIA

- Hoditerien soldadura eta loturak
- 2D instalazio termikoen diseinua: Autocad
- 3D instalazio termikoen diseinua: Revit
- Hozteko Zentrala

FABRIKAZIO MEKANIKA

- Metrologia
- Oinarrizko CAM GIBBS Tornua
- Oinarrizko CAM GIBBS Fresatzailea
- Neurketa hirukoitza MCOSMOS

ADMINISTRAZIOA / LANERAKO PRESTAKUNTZA

- 5S Metodologia
- Aurkezpen eraginkorrak: nola hitz egin jendaurrean
- Emozioen kudeaketa
- Yoga bidezko estresaren kudeaketa. 1. maila

OSTALARITZA

- Bezeroen arreta ostalaritzan/jatetxeetako enpresetan (Ebazteke daude)



CIFP USURBIL LHII Etarte bidea, 9 (Zubieta auzoa) 20170 Usurbil · cursos@lhusurbil.eus · www.lhusurbil.eus

ZUBIGUNE FUNDAZIOA www.zubigune.org · info@zubigune.org

Euskaraldian izena emateko azken txanpa

Hizkuntza-ohiturak astintzeko ariketa soziala hasteko egun gutxi falta direla, Lasarte-Orian, oraingoz, 1.051 'ahobizi' eta 356 'belarriprest' animatu dira parte hartzera

Txintxarri

Azaroaren 20an hasiko da Euskaraldiaren bigarren edizioa, ostiralarekin. Hizkuntza-ohiturak astinduko ditugu beste behin, abenduaren 4ra arte. Lasarte-Orian makina bat jendeke parte hartuko du ekimenean. Lasarte-Oriako Udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxordoki eta Ttakun Kultur Elkarteko lehendakari Mari Karmen Ormazabalak erakutsi dituzten erronkametroek diotenez, gaur-gaurkoz 1.407 herritar animatu dira parte hartzera:

ahobizi rola aukeratu dute gehienek, 1.051 pertsonak, eta beste 356 *belarriprest* izango dira. Izen-ematea ez dago itxita oraindik eta erronkametroak are gorago igo daitezke gaurtik eta azaroaren 19ra arte, Euskaraldia hasi eta bezperara arte.

Izena emateko aukerak

Aldizkari honen orrietan topatuko duzuen diptikoa bete eta herrian sakabanatuta dauden puntu finkoetan dauden kutxan sar dezakezue. Izena emateko



Ttakun KEko lehendakari Mari Karmen Ormazabal eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxordoki. TXINTXARRI

moduetako bat da hori. Beste bat da aurtun udalak eta Ttakun KEk martxan jarri duten egitasmo berritzailea, IGUNE ibiltariarena: herriko hainbat puntutan topatuko duzuen bizikleta bat da. Kultur etxean, Maialen Chourraut kiroldegian, asteazkenetan Andatza plazan egiten den azokan,

Okendo plazan eta Euskotren geltokian topatuko duzue, egun eta ordu jakin batzuetan. Azken eguna, esan bezala, azaroaren 19a izango da, osteguna.

Internet bidez izena ematea ere aukeretako bat da. Mugikorra edo ordenagailua piztu ostean esteka honetan klik egin behar

da: <http://izenematea.euskaraldia.eus/>. Mugikorretik izena emateko beste modu bat da QR kodeak irakurtzeko aplikazio batekin eskaneatu eta datuak betetzea. Egun gutxi batzuk ez dira falta hizkuntza-ohiturei beste astinaldi bat emateko. Anima zaitetz eta parte hartu!

"Gazteoi ere eragiten digu euskararen egoerak"

XABIER KARRIL GAZTEALDIA EKIMENEAN PARTE HARTUKO DUEN KIDEETAKO BAT Gaztealdiari ekin diote Euskal Herri osoko bederatzi gaztek. Euskara hutsean biziko dira zortzi egunez, talkak eta arnasmuneak identifikatzeko xedez. Xabier Karril herritarra da kideetako bat

Iñigo Gonzalez Sarobe

Euskal Herri osoko bederatzi gaztek ez diote erronka makala jarri euren buruei: zortzi egunez euskara hutsean bizitzea, tokian-tokian hizkuntza horrek normalizatzeko bidean topa ditzakeen talka eta arnasmuneak identifikatzeko. Parte hartuko duen pertsonetako bat da Xabier Karril lasarteoriatarra. Berarekin hitz egin du TXINTXARRI-k Gaztealdia ekimenari buruz.

Zer da Gaztealdia? Sorrera prozesutik has gaitzke.

Batu ginen Euskal Herri mailako talde euskaltzale desberdin batzuk. Ikusi genuen instituzioen aldetik euskarari



Xabier Karril herritarra. X. KARRIL

dagokionez eta hizkuntzaren biziberritze prozesuari dagokionez nahiko jarrera konformista hartu dutela eta beharra ikusi dugu egitasmoren bat abiatzeko.

Euskaraldia datorrela eta, aitzakia hori erabili genezakeela pentsatu genuen, eta Gaztealdia martxan jarri dugu.

Zein helbururekin?

Helburu nagusiak dira euskarak normalizatzeko prozesu horretan topa ditzakeen talkak eta arnasmuneak identifikatzea. Zortzi egunez, azaroaren 12tik hasita, euskaraz bakarrik biziko gara eta horrek azaleratuko ditu bilatzen ditugun egoera horiek.

Lasarteoriatarra zara zu Xabi, baina Gasteizen zaude une hauetan. Ariketa hiri horretan egingo duzu?

Parte hartuko dugun bederatzi kideok ez dugu egunero-egunero bakoitzaren lanketaren berri emango. Zortzi egun horietatik bitan Gasteizeko esperientziaren berri emango dut, eta Lasarte-Oriakoaz beste egun batean, aurkitzen ditudan talka eta arnasmuneen inguruan.

Zure eguneroko bizitzan topatu asmo dituzu talka eta arnasmune horiek.

Irizpide nagusia da naturaltasunez kalera joatea eta norberak bere bizitza egitea. Adibidez, unibertsitatera joatea, eta han topa ditzakedan talkak aipatzea eta jasotzea, ikus-entzunezko baten bidez, esate baterako. Bideoak egingo ditugu, baina beste euskarri batzuk ere erabiliko ditugu.

Asteon zabaldu duzuen adierazpenean esaldi adierazgarri bat erabili duzue: "Ez ditu garai errazak bizi euskarak".

Ikusi dugu erakundearen aldetik batez ere euskarari dagokionez jarrera konformista hartu dutela

eta azken urteetako datuek ere hala diote: erabileraren aldetik behintzat galgatu egin dela, eta beheraka ere badoala kasu askotan. Gainera, gazteoi askotan leporatu izan digute arduragabekeria puntu bat daukagula hizkuntzarekiko, eta guk gure ahotsa erabili nahi dugu esateko hemen gaudela, euskararen egoerak eragiten digula, inori baino gehiago.

Plazaratu duzuen adierazpeneko beste gogoeta bat: belaualdi berrien artean ez da sumatzen euskarari garai bateko bultzada emateko adina indar. Lasarte-Orian ere hori gertatzen dela uste duzu?

Nik uste ukazezina dela euskarak gure herrian duen egoera. Nahiz eta azken urteetan egin diren aurrerapen eta ahaleginek euren fruitua eman duten, ikusten da belaualdi gazteak euskara zokoratzen hasi direla. Oso garrantzitsua da beraiei helaraztea euskara bizirik mantentzearen garrantzia, ohikotasun handi batekin eta erabat normalizaturik.

Irakurri elkarrizketa osoa txintxarri.eus webgunean

Urtaroz kanpoko bertso uzta kultur etxean

Maiatzean egin behar zuten Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatutako bertso saioa, baina beste gauza asko bezala urte erdi geroago heldu da: hunkitzeko, gogoetarako eta, bereziki, barrerako abagunea eman du emanaldiak

Maitane Aldanondo

Udazkenean udaberria loratu dute Ane Labaka, Miren Amuriza, Alaia Martin eta Miren Artetxe bertsolariak; baina lekuz kanpoko nabari denarekin gertatu ohi denez, nostalgia moduko batek inguratu du saioa. Izan ez zena, falta dena, aldatutakoa... Bertaratutakoen musukoez harago, keinu txikietan igarri da aldea. Bertsolari bakoitzak bere mikroa erabili du uneoro, bata bestearengandik bereizita, eta elkarri hitz egiteko hurbiltzean ere, ohi baino urrunago gelditu dira.

Bizitza hankaz gora jarri duen gaiari ez diote iskin egin, gogoetarako ematen duten zenbait esaldirekin: Besarkada bat terrorismoa da ala iraultzailea? Garaiotan faltan botatzen dutenaren errepasoa egin dute ariketetako batean, eta gainerakoetan, zeharka bada ere, behin baino gehiagotan agertu da. Hala ere, Amaia Agirrek jarritako gaiek nonahiko horren itzalpean ezkutaturik gelditutako beste batzuk ere ekarri dituzte fokuen argipera. Esaterako, orain egun gutxi Donostiako Infernuko eraikin bateko hustea, Euskaraldia edo errefuxiatuen egoera. Azken hau, egia esan, Agirrek

beharrean, Miren Bardaji herritarrek proposatu du bideo baten bidez. Haiei bertsoak Ane Labakak eta Alaia Martinek jarri dizkiete.

Beste batzuetan, lehengo zein oraingo egunerokoaren parte diren egoeretan ere jarri ditu oholtza gainekoak; eta horietan genero ikuspegia agerikoago izan da. Yoga eta bestelako irteerak elkarrekin egiten hasi diren hiru emakumeren senarrek dituzten beldur eta kezak, Internet bidez ezagutu duen mutilarekin etxeratze ordua amaitu arte egotea baino 600euroko isuna ordaintzea nahiago duen neska, eta bi lagun artekoko ezkutuko inbidiak (akaso ez hain lagun ezta hain ezkutuko ere). Azken honetan; Labaka eta Amurizaren kontzientzia egia adierazle bilakatu dira Martin eta Artetxe, beste biek esandakoari iruzkin bihurriak eginez.

Gari Otamendik eta Araitz Bizkaik abesti ezagunen doinuak jo dituzte, haiek baliatuta

TXALO OLATU BATEKIN AMAITU DA IGANDEKO BERTSO SAIOA, IA 21:00ETAKO ORDU MUGAN

bertsotan egiteko: Mercedes Sosa, Joaquin Sabina, Los Rodriguez, Kiko Veneno edo aspaldi joandako uda urdin bateko Chanqueteren barkua. Erritmoa eta hasteko uneak zehaztu dizkiete bertsolariak, nahiz eta batzuetan ez diren erabat koordinatu.

Kultur diziplinak tartekatzen

Agirrek aurreratu zion TXINTXARRI-ri beste kultur diziplina batzuk ere tartekatu nahi zituztela saioan. Horiek ikus-entzunezkoak izan dira, batetik, eta Bea Egizabalen umorea, bestetik. Euskaraldia izan zuen hizpide eta horren bueltan barrea eragin duten burutazio ugari. Bat aipatzearen, ahobizi-belarriprest txapa ikusteko moduan jartzeko eskatu die ikus-entzuleei, XXL tamainako bat eskuan zuela. Martini egokitu dio elkar zuzentzen ez duten euskaldun jatorrei buruz bertsoan egiteko lana. Bukieran bueltatu da umoregilea saioaren laburpen bat egiteko, eta bildutako ideiekin agurren aurrekoa egin dute. Azken puntuan "Gora herri giroa eta gora bizipoza" elkarrekin abestu ondoren, txalo olatu batekin amaitu da bertso saioa, ia 21:00etako ordu mugan.



Ia bi ordu iraun zituen azaroaren 8ko bertso saioak. TXINTXARRI



Araitz Bizkai eta Gari Otamendiren doinuek girotu zuten saioa. TXINTXARRI



Bea Egizabalen umoreak barre algarra ugari eragin zituen. TXINTXARRI

Egurrezko artelanak

Zurmailu zurlanketa elkarteak erakusketa ederra ireki du Antonio Mercero gunean. Igandea izango da elkarteko 22 kideek egin dituzten artelanak ikusteko azken eguna, azaroak 15. Bakoitzak "pare bat" aurkeztu ditu. Gaur, ostiralez, 18:00etatik 20:00etara zabalduko dute erakusketa; bihar eta etzi, berri, eguerdian, 12:00etatik 14:00etara.



TXINTXARRI

Distopiarekin dantzan

Atx Teatroak *Kaskarot* haur antzerkiaren emanaldia egin zuen kultur etxean. Han bildutako familiek gizarte distopiko batean bizi den Anerren istoria ezagutu zuten. Dantzazale amorratua, dantza egitea debekatuta dagoen leku batean bizi da; baina ez dio gustuko duen horri uko egin nahi. Horregatik, agintean den ispiluak zigortu egingo du.



TXINTXARRI

Maitane Aldanondo

Bi hamarkada daramatza Asier Suberbiolak biolinarekin musika estiloen arteko zubiak eraikitzen aupaQUARTET edota Asier Suberbiola Swing Trio taldeetan, eta musika eskoletako ikasleen eskemak apurtzen biolin irakasle bezala. Konposizioa eta teknologia garaikideak graduondokoa du, eta orain psikologian oinarritutako master bat egiten ari da, *coaching*-a musikara bideratzeko.

Azken asteetan, ordea, albiste izan da eskuratu duen bekarengatik. Horren aitzakian, bere ibilbidearen erreposoa egin eta Iñigo Muguruzaren garrantziaz mintzatu gara Suberbiolarekin. Telefonoz, bizitoki duen Bartzelonatik erantzun ditu TXINTXARRI-ren galderak. Orain arte argitaratutako berrietan akatsak izan dira. Bata, jaioterria, berak zehaztuta ere hiriburura eramanda; bestea, burutu behar duen lanaren mamian. Lehena erraza da: Lasarte-Oria, 1978. Bestea... Ea oraingoan asmatzen duen kazetariak.

Musikaren barne klika

Etxean beti musika zegoela gogoan du, disko asko eta musika klasiko pila bat. Baita profesionalak izan gabe, gurasoen bizitzaren parte zela ere. "Amak koro batean abesten zuen eta aitak gaztea zenean mandolina jotzen zuen...". Txikitan gauzak probatzen hasi zen, judoa, pintura... baina ez zuen bat zetorkionik topatu musika-hizkuntzarekin hasi zen arte. "Segituan zerbaitek klika egin zuen eta 'Hau oso ni da' pentsatu nuen. Oso naturala egiten zitzaidan lengoia musikala ulertzea, musika bat deszifratzea, partiturak idaztea... Nire lekuan sentitu nintzen". Irakasleak belarri ona zuela esan zion eta "neukana aprobetxatzeko" aholkua jarraituta, hurrengo urtean Donostiako kontserbatoriora joan zen.

Instrumentua aukeratzean gurasoek libre utzi zioten, tamaina mugatuta. "Lau anai-arreba gara eta gure etxea ez da oso handia. Amak esan zidan: 'Nahi duzuna, baina kontrabaxua, pianoa eta harpa, ez'. Etxean baziren biolin disko asko, Pablo Sarasate, Vivaldiren *Lau urtaroak*... Biolina asko entzuten nuen eta pentsatzen dut soinua asko gustatzen zitzaidala".

"Aitortu behar zaio musika herrikoari daukan balioa"

ASIER SUBERBIOLA BIOLINISTA

Irungo Udalak aurten abiarazitako Iñigo Muguruza ikerketa beka irabazi berri du, eta haren abesti esanguratsuenetan oinarrituta, material didaktiko berezia osatuko du

Orduan 9 urte zituen, eta ez zaio erabakia inoiz damutu. "Gustuko ez banu, izan ditut uzteko denbora eta aukerak (kar, kar)". Profesionalki aritzea eliteko kirola egitea bezala da, egunero-egunero aritzeko borondatea

eskatzen du. Orain bere denboraren gehiena ematen badio ere; hasieran, ez horrenbeste. "Txikitan ez nuen, beste batzuek bezala, pila bat jotzen; pixka bat bakarrik klase aurretik. 12-15 urterekin ere praktikatzen nuen,

baina beti justu, behar zena, eta listo. Ahalegin nahikoa egiten nuen gauzak ondo joateko eta beste gauza asko ere egiten nituen, lagunekin egon, asteburutan atera, eskalatu, mendira joan..."

Elkartutako bi bide

Badaki ez dela propaganda onena, baina biolina gutxika joan zen bere tokia hartzen Suberbiolaren bizitzan, oso modu progresiboan. Unibertsitatera joateko unearekin batera aukeratzekoa ere heldu zitzaion, eta argi izan zuen musikari eutsi nahi ziola, eta, era berean, beste zerbaitek egin. Hala, Pedagogia eta musika goi ikasketak aldi berean egin zituen, eta egun, biak lotu ditu, jotzeaz gain, biolin irakaslea ere baita.

"Bi munduak asko gustatzen zaizkit. Azken urteetan apustu oso handia egin dut zuzenekora dedikatzeke. Orain dela hamar urte sortu nuen aupaQUARTET taldea eta horrekin birak egin ditugu Txinan, Brasilen, Europako herrialde askotan... Zuzenekoa oso garrantzitsua zait eta irakaskuntza ere. Oso gustuko dut partekatzea, trikimailutxoak irakastea... Uste dut, gainera, biolinaren kasuan behar handia dagoela".

Izan ere, instrumentu klasikoak izanik, askok halako musikara mugatzen dute. Biolinistak gogoan ditu kontserbatorioko irakasleekin zituen gatazkak. "Biolin klasikoak jotzen nuen

kontserbatorioan, curriculumean hori bakarrik zegoelako; baina asteburuetan, Jalgin, adibidez, musika irlandarreko talde bat sortu genuen, Tabu Tabar... Sorkuntza eta fusioa, oso naturala izan zait beti". Zentzu horretan, egiteko lan asko dagoela uste du. Bere ikasleekin sormena lantzen du errekurtsio gehiago eta beraien instrumentuarekin harreman hobea izan dezaten.

Partitura hibridoa

Nolabait, bide guzti horiek bat egin dute Iñigo Muguruza ikerketa bekaren proposamenean. Newsletter "asko-askotan" harpidetuta dago lasarteoriatarra eta haietako baten bidez izan zuen deialdiaren berri. Berehala jabetu zen bai ala bai parte hartu behar zuela. "Oso nire koherentziakoa ikusi nuen. Iñigo Muguruzaren musika izan da 10-12 urte neuzkanetik etxean entzun dudana eta asteburuetan lagunekin dantzatzen nuena. Kortatu, Negu Gorriak, Delirium Tremens, Joxe Ripiau... Nire gaztaroaren identitatea dira!". Urriaren 20an Irungo Udalak ezagutarazi zuen bera zela aurten jaiotako egitasmoaren irabazlea.

Muguruzaren lanean oinarrituta material didaktikoa osatuko du Suberbiolak. Irundarra parte izandako talde guztietako abesti esanguratsuenak aztertuko ditu: Zer egitura duten, zer harmonia akordeen eta graduen aldetik, erritmoari dagokionez zer zehaztasun... Eta horrekin, kanta bakoitzaren partitura malgu bat idatziko du; hau da, ohikoen zehaztapenaren eta jazz musikak erabiltzen duen sistemaren arteko hibrido bat, berak asmatua.

"Partituren antzekoa da, baina ez da betikoa, alegia, dena idatzita dagoena. Dena idatzita dagoenean egin daitekeen gauza bakarra

"OSO NATURALA EGITEN ZITZAIAN LENGOAIA MUSIKALA, NIRE LEKUAN SENTITU NINTZEN SEGITUAN"

"MUGURUZAREN MUSIKA IZAN DA 10-12 URTE NEUZKANETIK ETXEAN ENTZUN DUDANA"



Zenbait talde eta orkestratan jotzeaz gain, biolin irakasle ere bada lasarteoriatarra.

jotzea da. AEBtatik datorren jazz musikan ez dute dena idazten, baina abestiaren muina, bere nolakotasunak, adierazten dituzte, eta horrek ateak irekitzen dizkio [jotzeko] modu kreatiboago bati. Horrekin guztiarekin material malgu bat egingo dut, informazio mota ezberdina emango duena. Abesti horren esentzia edukiko du, baina ahalbidetuko du irakurketa ezberdin asko egitea".

Askotariko profilentzat baliagarri izatea nahi du. "Uste dut erabiltzaileak oso desberdinak izango direla. Musikari profesionalak, ikasleak, irakasleak... edo liburua jaso duen norbait. Materialak malgua izan behar du errealitate anitzetatik ulergarria izateko eta instrumentu ezberdinekin interpretatu ahal izateko. Horrek hartuko du denbora gehien". Zortzi hilabete ditu bere buruari jarritako erronka gainditzeko. Emaizta Irungo Udalak editatuko duen liburu batean bilduko dute. Partiturez gain, haiek nola baliatu azaltzeko hitzurre bat ere idatziko du.

Muguruzatarren ondarea

Aztertze abestien lehen aukeraketa egin ondoren, Fermin eta Jabier Muguruza anaiekin kontrastatu nahi du, Kortatu eta Negu Gorriak garaian lehengoa izan zuen Inñigok aldamenean, eta Joxe Ripiaun, bigarrena. "Aukeraketaren parte izatea nahi dut, ekarpen edo aldaketaren bat egin nahi badute. Garrantzitsua da niretzat. Ez dadila [proiektua] nirea bakarrik izan, baizik, ahal den gehien, denona".

Muguruzaren ibilbideari erreparatzea Euskal Herriko musika herrikoia bilakaera ezagutzeko modu bat ere bada Suberbiolaren esanetan. "Egon

"ABESTIAREN ESENTZIA EDUKIKO DU, BAINA IRAKURKETA EZBERDIN ASKO"

"EUSKAL MUSIKARI BATEK BAI EDO BAI EZAGUTU BEHAR DITU NEGU GORRIAK, JOXE RIPIAU ETA KORTATU"

den taldeen musika aztertzen badugu, zuzenean musika herrikoia erradiografia bat lortzen dugu. Azkenean, 1980ko hamarkadan zer entzuten zen hemen batez ere? Punka eta rocka. Eta hori zer zen? Kortatu". Are gehiago, Euskal Herrian zer gertatu den eta ateak nola ireki diren ulertzeko modu bat ere badela dio, Muguruza familia musika berrien enbaxadore izan baita. Batetik, Irungo jendeak azaldu dionez, Londres edo Berlinetik diskoak ekarri eta tabernetan jartzen zituzten, hala, talde pila ezagutaraziz. Bestetik, euren musikarekin. "Oso naturalki egin dute. Kortatuk Euskal Herrira ekarri du, adibidez, The Clashen musika, Negu Gorriak, rap, hip-hop, reggae eta soul musika. Ondoren talde gehiagok egin dute mestizaia hori, baina Negu Gorriak izan zen ate hori irekitzen lehena. Joxe Ripiauk zer ekarri zuen? Aire karibetarra. Eta hori ez da musika bakarrik, pentsatzeko modu bat ere bada".

Zubiak eraiki

Ezagutza hori guztia belaunaldi berrien eskura jarri nahi du. "Nahiz eta 1980ko hamarkada beraiantzat Historiaurrea den, garai horretako musika oso garrantzitsua izan zen. Musika klasikoa, Mozart eta Beethoven ezagutu behar duten bezala, uste dut Euskal Herriko musikari batek bai edo bai ezagutu behar duela zer den Negu Gorriak, Joxe Ripiau eta Kortatu". Hortaz, Suberbiolaren proposamena musika herrikoia aldarrikatzeko bidea ere bada. "Ez dadila izan bigarren mailako musika, askotan jartzen den bezala; bestelako balio bat du. Klasikoa askotan oso landuta dago eta intelektualki oso urruti doa, baina, batzuetan, horrexegatik galtzen du publiko gazteenarekin konexioa. Aitortu behar zaio musika herrikoia daukan balioa".

Eta ildo horretatik, belaunaldi arteko zubi gisa irudikatu nahi du bere lana. "Segituan imajinatu nuen oso erraza dela 10-15 urteko musikariak etxean Kortaturen abesti bat jotzen hastean bere gurasoek erreakzionatzea, sentimendu politak piztea eta gurasoek abesti horri lotutako anekdotak kontatzea. Konexio puntu hori oso polita da".



Musika klasikoa eta bestelako estiloak –jazza, rocka, inprobisazioa– uztartzen ditu biolinistak bere jardunean. ASIER SUBERBIOLA

"Sendatuko naizen esperantza dut, baina zaila izaten ari da hau guztia"

BEGO TOQUERO COVID-19 IRAUNKORRA DUELA SUSMATZEN DUTE

Otsailean agertu zitzaizkion lasarteoriatarri lehen sintomak. Eztarriko eta buruko mina eta sukarra, besteak beste, baina negatibo eman du koronabirusa atzemateko probetan

Maddi Zaldua

Ia bederatzi hilabete damaratza Begok ondoezik. Otsail amaieran, koronabirusaren informazio gehiegi oraindik hedatu gabe zegoen garaian hasi zen eztarriko eta buruko minarekin eta baita sukarrarekin ere. Momentuko ohiko gaixoaldia izango zenaren ustetan igaro zituen lehen egunak, baina egun eta asteek aurrera egin, eta sintomak ez zitzaizkion desagertu. Orduz geroztik, ondoezik jarraitzen du. Bolada batzuetan hobekuntza txikiak antzematen dituen arren, gaixorik jarraitzen du, eta, neke eta giharretako minaz gain, febrikularekin bizi da gaur-gaurkoz.

Nola hasi zen guztia? Otsailean lehen sintomak agertu, eta ...

Otsaila bukaeran, oraindik, hemen COVID-19aren inguruan ez zen ezer entzuten, medikuek ere konsultan atenditzen gintuzten. Katarro soil bat zenaren ustarekin hasi nintzen; eztula pixka bat, eztarriko mina eta sukarra, 38,5eraino.

Ostegun bat zen, nik laneko bajarik ez nuen hartu, pentsatuz asteburua ohean pasata aurrera jarraitzeko moduan izango nintzela, baina egunak aurrera joan ahala, ez eztarriko mina ezta sukarra ere ez ziren desagertzen. Orduan, hamabost egun pasa ondoren, bestelako jarraipenak egiten hasi zitzaizkidan. Plaka eta analitika bana egin zizkidan, baina ez zuten COVID-19arekin harreman du. Momentu hartan, Txinara edo Italiara bidaiatu ote nuen soilik galdetu zidaten. Ezezkoa erantzun nien, eta erantzun horrekin, PCR probarik ez zuten planteatu ere egiten.

PCR probarik egin ez, hortaz koronabirusarekiko susmorik ez zuten medikuek.



Bizitzen ari den egunerokoaren berri eman dio herritarrek TXINTXARRI-ri . TXINTXARRI

Ez, hasierako egun horietan PCR probarik ez zidaten egin. Baina sukarra desagertzen ez zela kontuan hartuta, Lasarte-Oriako ambulatortik ospitaleko barne-mezinarara bideratu ninduten, eta orduz geroztik, bertatik egiten didate jarraipena. **Lehen hamabost egunak igaro eta sintomak zurekin jarraitzen zutela ikusita, zein prozesu jarraitu duzu?** Nire kasuan ospitalera bideratu eta egin zidaten lehenengo proba odoleko analitika bat izan zen, bilatzen ari zirelako sukarrarekin zerikusia izan zezakeen birus

"EZTARRIKO MINA ETA EZTULA DESAGERTU DIRA; FEBRIKULA ETA GIHARRETAKO MINA, ORDEA EZ"

edo bakteriarren bat. Analitika horretan, ordea, dena ondo dagoela esan didate, ez dagoela ezereen arrastorik.

Justu momentu horretan, martxo erdialdera iritsita, itxialdia agintzen digute eta nire aurrez aurreko ospitaleko hitzorduak amaitzen dira; dena telefonikoa bihurtzen da. Horrekin batera, etxekoak ere hasten dira hainbat sintomekin, eta hor agertzen da COVID-19a izan daitekeenaren susmoa lehenengoz. Hortik aurrera hasi zitzaizkidan posible COVID-19" gisa artatzen.

Maiatzaren erdialdean egin zidaten lehenengoz PCRa eta negatibo eman nuen. Serologikoa ere egin zidaten, eta, berdin, negatiboa izan zen emaitza. Hortik aurrera, behintzat, ireki zitzaizkidan atean ospitalean

behintzat frogak egin ahal izateko. Nahiz eta sintomak eduki eta frogatan negatibo eman, aukera neukan eskanerrak edo beste analitika batzuk egiteko. Ordura arte ezin bainuen ospitalera joan sukarra naukalako, PCRrik gabe; soilik urgentziatik. Analitika horietan ez zen ezer agertzen.

Gaur-gaurkoz zein sintomekin jarraitzen duzu?

Lehen egunetan sentitzen nuen eztarriko mina eta eztula desagertu dira, baina febrikula geratu da. Horrez gain, sekulako nekea, artikulazioetako mina eta buruko mina ere bai; mina baino gehiago, buruan behelainoa sartuta izango banu bezala sentitzen dut, pentsatzen uzten ez didana, sentsazio arraroa da.

Bederatzi hilabete igaro dira guzti honekin hasi nintzenetik, eta nire egoera ziklikoa izan dela esango nuke; ez da egonkorra izan. Bolada batzuk hobeto igarotzen ditut eta beste batzuetan, aldiz, okerrera egiten dut. Urria amaiera eta azaroa hasieran hobekuntza antzeman dudun arren, azken aste hauetan okerrera egin dut. Sukarrarekin hasi naiz berriro, eta gaur-gaurkoz hala jarraitzen dut. Joan den igandean sukarrarekin hasi nintzen berriro, eta orduz geroztik okerrera egin dut.

Zure eguneroko martxari nola eragin dio COVID-19 iraunkorren susmoa edukitzeak?

Otsail amaieratik bajan nago, eta, hortik hasita bakarrik, eragin nahiko handia da lanik egin ezin ahal izatea. Egia da guztion egunerokoa asko aldatu dela koronabirusa agertu zenetik, baina, nire kasuan, maiatz erdialdera arte guztiz konfinatuta egon naizen aldetik, asko eragin dit. Beldurra sentitu dut hasieran ez bainekien kutsatzeko arriskua ote zegoen ala ez eta harremanak ere, batez ere adineko jendearekin asko neurtu ditut. Aurrerago medikuek erabateko normaltasunez kalera irteteko baimena eman zidatenean horrek

arindu zuen pixka bat egoera. Dena den, gaur egun ez nago liburu bat irakurtzeko moduan, kontzentrazio falta handia sumatzen dut eta baita nekea ere eta horrek asko mugatzen nau; Oriatik herrira jaisteko ere komeriak izan ditut zenbait egunetan.

Esperantza daukat pasako dela, gaixotasun honetatik sendatuko naizela, baina askotan zaila da pentsamendu horri eustea. Sintomak gutxitzen joaten diren egunetan esperantza sentitzen dut, sendatuko naizela pentsatzen dut, baina egunak pasa eta berriro ere okerrera egiten dudanean, esperantza hori desagertzen da. **Febrikularekin bizi behar izateak ere asko mugatuko du zure egunerokoa kalean. Gaur egun, leku publiko askotara sartzeko temperatura neurtzen dute; antzokietan, kirol instalazioetan...**

Gertatu zait sartu ezinik geratzea lekuren batean edo bestean, baina azalpenak ere ez ditut gehiegi eman. Ulertzen dut, adibidez, Anoetako mini estadiora sartzen diren pertsonen temperatura hartzen ari den pertsonari azalpenak ez dizkiodala eman behar, hortaz, kanpoan geratu izan naiz eta kitto. Gertuko jendearekin edo konfiantza dudaneekin, ordea, hitz egin dut, azaldu diet nire egoera eta ez didate inolako trabarik jarri. Medikuek ere eskaini zidan agiri bat, baina, gaur-gaurkoz, saiatzen naiz temperatura neurtzen duten lekuak ekiditen.

Diagnostiko argirik, ordea, ez duzu, eta otsailetik bajan zaude. Hori kudeatzeko ere zailtasun bat baino gehiagorekin aurkituko zinen, ezta? Zein da Begoren bajaren arrazoia?

Nire baja-paperetan, gaur egun ere, eztarriko mina agertzen da. Ez dute hori aldatu. Bajan sei hilabete igaro ondoren, ikuskariak begiratzen dituzte kasuak. Hemen, Lasarte-Oriako ambulatortiko nire medikuarekin eduki ditut elkarrizketa ez oso atseginak, izan ere, analitikako emaitzetara mugatzen bagara,

dena ondo dago, baina ni ez nago ondo.

Osakidetzako ikuskariarekin arazoak izan ditut. Otsailetik hona, bi motatako medikurekin egin dut topo: alde batetik, nire kasuaz jakin ez eta galduta dagoela onartzen duen medikua, baina prozesuarekin bat egiten duena, egoerak aurrera nola egiten duen ikusteko prest dagoena; eta, bestetik, nire egoera zalantzan jartzen duen mediku mota, sinesten ez didana, analitikei begiratu eta dena normal dagoela besterik adierazten ez duena. Azken horiek psikologikoki gaizki egongo banintz bezala sentiarazi naute; animoak eman dizkidate, kalera irteten hasi behar nuela, eguneroko martxari ekin behar niola, lanera itzultzeko saiakera egin beharko nuela eta abar. Egia da otsail amaieran hasi nintzela guzti honekin, hemen emandako lehenengotariko kasuetariko izango nintzela seguruenik eta ez zuela sekula nire kasuaren berri entzungo. Hor, ordea, barne-medizinakoek nire kasuaz egindako txostenak irakurtzen zituen, eta bere arazoiketara horretan atzera pausuak ematen zituen; itxaron beharko dugu, ikusi beharko da zer ateratzen den...

Aitortu behar dut noski, nire kasuan ospitaleko medikuak enpatia handia erakutsi didala beti eta ez du inoiz zalantzan jarri nire sintomak zeintzuk diren, baina ez da batere atsegina izan zalantza guzti horiei aurre hartu beharrean bizitzea; gaixorik nago eta azalpenak ematen aritu beharra ez da atsegina. Momentu askotan inork ulertzen ez ninduela sentitu dut. **Ezjakintasunean bizi duzue zuen egunerokoa. Horrek zure gaixotasun fisikoari gehitzen dio gain karga bat, ezta? Psikologikoki egoera guzti hau kudeatzea ere ez da lan erraza izango.**

Nire kasuan neurri batean buruaren egoerari ere eman diodala nolabaiteko buelta bat, baina ez da erraza izan. Honekin gertatzen dena da gaixo askok duten diagnostikoa antsietatea edo depresioa dela. Argi daukagu kasu askotan antsietatea edo depresioa, edo biak, ematen direla, baina ez direla gaixo egotearen zergatiak, baizik eta gaixo egotearen ondorioz sortutako albo-kalteak. Nire kasuan, ez dakit ez nola ezta

zergatik ere, baina alderdi hori nahiko bideratuta daukat. Nire nahia horretan ez pentsatzea den arren, burua askotan bakarrik doa, eta buruaren erritmoari neurria hartzea oso zaila da askotan. Eta horri gehitzen badiozu gaixotasunak kasu askotan etxetik ezin atera uzten zaituela, ba pentsa, nola ez naiz ba egongo deprimituta edo antsietatearekin? Baina hori izan daiteke beste sintoma bat; ez da hori guzti honen arrazoia.

Eta lanean? Arazorik izan duzu egoera guzti honekin?

Inolako arazorik ez dut izan. Laneko medikuak ere egiten dizkit jarraipenak eta ez dut inolako arazorik izan inoiz. Are gehiago, nirekin batera egoera guzti honekin ikasteko prest agertu dira beti bai lankideak eta baita laneko medikua ere. Informazioa partekatu dugu, kontaktuan gaude.

Zuk, orduan, argi duzu COVID-19aren ondorio direla dituzun sintoma horiek?

Zehaztaper bat egin nahiko nuke hemen; ez dakigu sintomak COVID-19aren ondorio diren edo gaitza organismoaren barruan dagoelako diren. Artikulu ugari argitaratzen ari dira, baina ikerketa nahikorik

"EZ DAKIT SINTOMAK GAITZA PASATZEAREN ONDORIO DIREN EDO GAITZA NIREKIN DAGOELAKO DIREN"

ere ez da egin; ez da denbora nahikorik pasa ikerketa zientifikoak edukitzeko. Nik argi daukadana da gaizki nagoela, gaur egun gaixo nagoela oraindik eta azalpena bat bilatu behar zaiola honi. Ez dira nire gauzak.

Kolektibo bat ere sortu duzue bizitzen ari zareten egoera hau ezagutarazi eta beharrak kudeatzeko. Zein behar aldarrikatzen dituzue eta zein puntutan zaudete? Zer da lortu duzuen? Eta zer botatzen duzue oraindik faltan?

Euskal Herrikoarekin harremanetan nago ni eta bertako kide garen gehienak nire kasu bera bizitzen ari dira; proba biologikoetan negatibo ematen dugunak gara, baina gaur-gaurkoz sintomekin jarraitzen dutenak.

Alde batetik, gaixotasun gisa aitortza bat eskatzen dugu. Erresuma Batuan gaixotasunaren onarpena egin da, aurrerapauso bat bada, eta, gutxienez, hor

badaukagu eredu hori. Horrekin batera, sintomak zeintzuk diren adierazi eta horiei aurre egiteko tratamendu bat lortzea; ikerketa egitea.

Bajekin ere badira konpondu beharreko gauzak. Nire kasuan, eztarikoa mina agertzen da nire bajan, baina hori ez da diagnostiko bat, sintoma bat baizik. Kasu honetan, aldea dago positibo eman dutenekin; horiek diagnostiko bat dute; guk, ordea, oraindik ez.

Osasun sailarekin harremanetan gaude. Gure egoera ezagutarazi diegu eta kolektiboak eskatzen dituen puntuak ere helarazi zaizkie. Gasteizen ere bilera bat egin dugu parlamentari batekin, gure egoera aurkeztu zitzaion; gure nahia da parlamentura gonbidatuak izatea aurkezpena bat egiteko eta gure egoeraren berri emateko.

Eskatzen duzuen horrek erraztuko du zuen egunerokoa; eramangarriagoa egingo du?

Bai, behar dugu, gaixorik gaude. Medikura joan behar dugu eta gainera, dagoeneko ez daukagun indar guzti horrekin joan behar dugu. Medikuei aurre egiten ibili behar gara. Medikuntzari dagokion ezagutzarik ez daukat, orduan, adibidez, planteatu diot

ea zergatik jarri didaten bajan eztarikoa mina dudala. Hori guztia behar bezala, dagokion kodearekin zehaztuta baldin badator ez genuke horrela ibili beharko; indar horiek beste gauza baterako gordeko genituzke.

Ez dakigu irakurleen artean zurea bezalako beste kasurik egongo ote den. Hala balitz, hitzen bat zuzendu nahiko zenieke? Eta zurekin edo kolektiboarekin harremanetan jarri nahiko balu, nola egin dezake?

Nire medikuak esanda, zehazki nortzuk diren ez dakidan arren, badakit Lasarte-Orian badaudela ni bezalako beste kasu batzuk. Kolektiboarekin harremanetan jartzera animatuko nituzke. Informazio asko jasotzen dugu eta niretzat oso lagungarria izaten ari da. Gure egoera berean dagoen jendearekin hitz egiteak eta bizitzen ari garena konpartitzeak babes handia ematen dit, norbaitek nola nagoen eta zer bizitzen ari naizen ulertzen duela ere sentitzen dut.

Kolektiboarekin harremanetan jartzeko modu ezberdinak daude. covidpersistente.euskalherria@gmail.com posta helbidea sortu dute eta bertara idatzi dezakete interesa dutenek. Sare sozialen bidez ere bai; Twitterren eta Facebooken.



Bego Toqueroren testigantzak bidez ere jaso ditu TXINTXARRI-k. QR kode hau eskaneatuta ikus dezakezue



Gaixotasun fisikoaz gain, buruarekin ere lan handia egin behar izan du Begok denbora guzti honetan; otsailetik maiatzera arte etxetik atera ezinik egon da. TXINTXARRI



Gorka Gil eta Raul Gomez Margallo, irudian eskuinean, 2019. urteko Amarako krosean. J. ZATARAIN

Lasterka egiteko gogoekin

Pandemia hasi zenetik, korrikalari afizionatuek lasterketa gutxi batzuk izan dituzte euren lehia nahia asetzeko. Maite Salazar, Raul Gomez Margallo eta Gorka Gil herritarrekin bildu gara euren jarduna nola moldatu duten jakiteko

Nerea Eizagirre

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoa, Behobia-Donostia, Donostiako maratona... Herriko korrikalariak udazkeneko denboraldi betearekin egongo lirarteke oraintxe; COVID-19aren pandemiak eraginda, ordea, hitzordu garrantzitsu gehienak bertan behera geratu dira eta korrikalariak entrenatzea besterik ez dute. Raul Gomez Margallo, Gorka Gil eta Maite Salazarrekin hitz egin dugu euren egoerari buruz jakiteko.

Azaroaren 8an, esate baterako, Donostia-Behobia jokatu behar zen. Hirurei ez zien harritu proba bertan behera geratzea.

"Lasterketa asko eta asko bertan behera geratzen ari zirenez, Behobiarenak ere ez ninduen harritu, oso lasterketa jendetsua baita. Egia esan pena izan da, urteroko zita izaten baita", aipatu du Maite

Salazarrek. Hala ere, pena handiagoa eman dio herriko Lasarte-Oria Bai! krosean ezin parte hartzea. "Behobiak baino pena handiagoa eman dit herrian Ostadarrek antolatzen duen krosa ez ospatzeak, herritarrontzat egun berezia izaten da eta".

Gorka Gilek beheraldi animikoa izan zuela onartu du. "Behobia bertan behera geratzen zela esan zutenean, probari buruz gehiago jakin nahi ez nuela erabaki nuen".

Horrek, Behobia-Donostia birtualean ez parte hartzeak

MARTXOTIK PROBA BAKARREAN IZAN DIRA GOMEZ MARGALLO ETA GIL; SALAZARREK, BERRIZ, BAT ERE EZ

ere ekarri zuen bere kasuan. Baina ez da bakarria izan proba egin ez duena; hiruretako inork ez du parte hartu.

"Simulazio bat da eta proba horrek duen xarma galtzen du. Behobia-Donostiako giroa bizi behar da", nabarmendu du Gomez Margallok.

Proba bakarra

2020. urtean martxoan, itxialdia baino lehen lasterketak egin zituzten hirurek.

"Kirol proba ligako hainbat probatan parte hartu eta sailkapeneko lehen postuetan jarri ginen", adierazi du Gomez Margallok. Salazarrek berriz, Lilatoian parte hartu zuen.

Ostean, ordea, Salazarrek ez du lasterketarik egin. "Urria eta azaroa lasterketa herriko askoko hilabetea izan ohi da eta aurten horiek sortzen didaten

urduritasun eta emozio puntuaren falta sumatu dut".

Gainera, aurten helburu berezirik ez zuela ere adierazi digu. "Ez nuen helburu berezirik eta momentuz ez diot nire buruari erronkarik jarriko".

Gomez Margallok eta Gilek, irailaren 17an, Ordiziako Josetxo Imaz oroimenezkoan hilabetetako harra hil ahal izan zuten.

"Gogo asko genituen lasterketa batean parte hartzeko. Egia esan, beldurrarekin edo atera ginen. Ez genekien zein egoeratan ginen eta mantxo hasi ginen. Eta lasterketa aurrera joan ahala, hobeto sentitu ginen eta ongi amaitu genuen", azaldu du Gilek.

Gomez Margallo hamargarren izan zen eta Gil, ordea, hogeigarren. "Oso marka onak egin genituen. Gure markarik onenak, esango nuke", nabarmendu du Gomez Margallok. "Hasieran erritmo biziagoan joan izan bagina, izugarriko markak egingo genituzke", atxiki du Gilek.

COVID-19aren aurkako neurriak kontuan izanik, Ordiziako proba oso ondo antolatua zegoela adierazi digute.

"Tenperatura hartu ziguten guztioi hasieran, bakoitzak bere lekua zuen irteeran, metroko tartea zegoen bata eta bestearen artean eta taldeka atera ginen. Parte-hartzaile kopurua murriztu zuten eta 300 pertsona izan ginen. Taldeak 50 pertsonakoak ziren", aipatu du Gilek.

"Entrenatzean musukoarekin egon ginen eta irteera puntuan atera baino minutu bat lehenago kendu genituen. Lasterketan gero, distantziak mantentzearena ez zen hain erraza. Helmugara iristean beste musuko bat ematen zizuten jartzeko", azaldu du Gomez Margallok.

Lasterketa horren ostean, gehiago egotea espero zuten arren, pandemiaren garapenak ez du posible egin. Duela bi aste, esate baterako, Debako izena eman zuen bikoteak baina ezin izan dute proba bertan behera geratu zelako.

Korrika egitea gustuko

Hiru herritarrek lasterka egitea dute gogoko. "Korrika egitea gustuko dut eta intentsitate ezberdinarekin bada ere, ahal dudana bitartean jarraituko dut", adierazi du Salazarrek.

Gomez Margallok eta Gilek, ordea, onartu dute korrika egitea baino, lehia dutela gustuko.

"Eskutik ihes egin digun zaletasuna da. Lehen postuetan ginela ikusi eta horrek lehiatzeko gogo gehiago eman zigun", adierazi du Gomez Margallok.

"Guk gustuko duguna lehiatzea da. Entrenamenduak lasterketa egitearen alde txarra dira. Guk ongi korrika egin ahal izateko entrenatzen dugu. Gogor entrenatzeak lehian du isla", adierazi du Gilek.

Entrenamenduak

Hala ere, egoerak entrenamenduak egitera bakarrik ahalbideratzen ditu eta entrenamenduen intentsitatea jaitsi dutela onartu dute hirurek.

"Gutxiago entrenatzen dugu. Ez dugu astebururo lasterketarik egin behar, ez gara mugitu behar lasterketak prestatzeko. Lasaiago gaude. Nik txandaka egiten ditut entrenamenduak, egun bat bai, bestea ez. Hala ere, igandeetan elkarrekin geratzen gara Gorka eta biok eta orduan lasterketa simulakroak egiten ditugu. Ohitura ez galtzeko", onartu du Gomez Margallok.

"Mantentzeko adina egiten dut, gustuko dudalako egiten dut. Lasterketarik ez dagoenez, gure artean egiten dugu lehia", atxiki du Gilek.

Salazarrek Donostiako talde batekin egin ohi ditu entrenamendu saioak, baina azken aldian ez da hiriburura gerturako saioak egiteko.

Hala ere, entrenatzaileak prestatutako taula bat du eta taula bere kabuz jarraitzea erabaki duela aitortu du. "Bakarrik egiten ditut entrenamenduak. Lasterketak ez daudenez, motibazioa ez da horrenbestekoa eta ondorioz intentsitatea ere jaitsi dut. Hori bai, ez diot korrika egiteari utzi, beste modu batera hartzen eta gozatzen ditut orain entrenamenduak".

Itxialdian ere forma mantentzen saiatu zela jakitera eman digu. "Itxialdian bizikleta egin dut asko, etxean rodilloarekin. Eta aplikazio eta bideo bidezko entrenamenduak".

Gomez Margallok eta Gilek, ordea, itxialdian nolabaiteko atsedena izan zutela onartu dute.

"Nik ahoa itxi nuen, kilorik ez hartzeko. Gehien kosta zitzaidana hori izan zen.

ENTRENAMENDUEN INTENSITATEA JAITSI ETA LEHIAKETAK NOIZ ANTOLATU ZAIN DAUDE HERRITARRAK

Azkenean, etxean egon ginen hilabeteetan kilo bakarria hartu nuen, baina ongi jaten saiatzen nintzen. Korrikarik edo horrelakorik ez nuen egin", onartu du Gilek.

"Zinta batzuk erostekotan egon ginen, baina azkenean makina hori sartzeko lekua behar duzu eta gero alde batera uzten duzu eta traste bat bihurtzen da. Ni etxean egon nintzen, eskailerak igo eta jaitsi. Baina korrikarik ezer. Ni naizenerako, deskantsatzen egon nintzela esan daiteke", adierazi du Gomez Margallok.

Jarduera eza horrek Gilen egoera fisikoan eragina izan zuela ere jakitera eman digu. "Konfinamenduaren arintzean, korrika atera nintzen lehen egunean min hartu nuen eta beste bi aste egon behar izan nintzen geldirik".

Egungo neurriak

Azaroaren 6ko dekretuak kirol jardunean eragina izan du. Korrikalarien kasuan, herrigunean musukoa eraman beharko dute.

Salazarrek neurri berriek bizitzako beste arloetan bezala bere eguneroko kirol jardunean eragina izan duela aitortu digu. "Azken asteko neurriengatik bereziki herri gunetik aparte korrika egiten saiatzen naiz, mendi aldean ere lehen baino gehiago egiten dut korri. Musukoarekin korrika egitea ez dut uste ona denik, beraz jende gutxi dabilen leku eta orduetan entrenatzen saiatuko naiz".

"Nik ez ditut hedabideak asko jarraitzen eta nire ingurukoek esaten didate zer egin ahal dudan. 'Orain ezin duzu korrika egin. Musukoa eraman behar duzu...'. Azken neurri horrek ere zalantzak sortzen ditu, non dago gurean hirigunea eta landa eremuaren arteko bereizketa. Ni gaur Zubieta aldean ibili naiz eta herri eremura iristen jantzi dut", adierazi du Gomez Margallok.



Maite Salazar 2019. urteko Lasarte-Oria bai! krosetako helmugara iristen. TXINTXARRI

Gilek musukoaren erabilera beharrezkoa jartzen badute argi du etxean geratuko dela. "Nik musukoarekin korrika ez dudala egingo argi dut. Beraz, guztiz behartzen badute, etxean geratuko naiz berritiro".

Neurriak gogortu ezean, lehiaketen denboraldiaren zain, entrenatzea besterik ez dute hiru herritarrek.

"Lasterketaren bat antolatzen badute prest egon behar gara. Baina udaberrira arte gutxienez lasterketarik ez dela izango uste dugu", aitortu du Gomez Margallok. "Eta galtzen dugun beste urte bat da. Adinarekin ari gara borrokan", atxiki du barre artean.

"Motibazioa dugu. Gazteekin borrokatzen gara eta ez diegu

erraz jartzen. Horrek ere laguntzen du", aipatu du Gilek.

Salazarrek, berriz, argi du egoeraren garapenak baldintzatuko duela lehiaketen antolamendua. Hala ere, hasten direnean parte hartzeko prest agertu da. "Egoerak zein garapen duen ikusi behar. Baina lasterketak hasten direnean gustura hartuko dut parte proba horietan!".

BERTSO ANTZERKIA **Urpekariak**

azaroak 13, **OSTIRALA**, 18:00 Suteği **SARRERAREKIN**
haur eta gaztetxoentzat (6-11 urte)

KONTZERTUA ETA FILMA **Peru Galbete**

azaroak 14, **LARUNBATA**, 20:00 Suteği **SARRERAREKIN**

FILM ETA SOLASALDIA **Oskar Alegriaren Zumiriki**

azaroak 15, **IGANDEA**, 18:00 Suteği **SARRERAREKIN**

KONTZERTUA **Anari, Malen&Maddi**

azaroak 20, **OSTIRALA**, 20:00 Suteği **SARRERAREKIN**

DANTZA **Korrontzi Dantzan + ORBELDI dantza taldearekin**

azaroak 21, **LARUNBATA**, bi saio 18:00 eta 20:00 Suteği **SARRERAREKIN**

ANTZERKIA **Fadoak entzuten zituen gizona**

azaroak 22, **IGANDEA**, 18:00 Suteği **SARRERAREKIN**

Sarrerak: Lizardi eta Noauan aldez aurretik. Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaua!ko egoitzan



noaua

NOAUA!KO KULTURALDIA 2020

**USURBIL
AZAROA**



Hamabost egunez, kirol elkarteentzako jarduna etenda

Azaroaren 6ko dekretuaren arabera, ezin dira taldeko kirol jarduerak ez profesionalak egin. Lasarte-Oriako kirol elkarte gehienek euren jarduna etengo dute. Udal Kirol Zerbitzuak neurriekin lotutako hainbat moldaketa jakitera eman ditu

Txintxarri

COVID-19aren aurkako azken dekretuak, Lasarte-Oriako kirol taldeen jarduna ia guztiz gelditu du. Kirol elkarteek jakitera eman dutenez, kirol zerbitzuak kideak eurekin jarri dira harremanetan entrenamenduak eteteko. Texas Lasartearra, Buruntzazpi txirrindularitza eskola edo Beltzak Errugbi taldeak dagoeneko ez zuten saiorik egiten, beraz, Ostadar SKT, LOKE, Intza eta Buruntzaldea IKTKo kirolariei eragiten die neurri berriak.

Talde gehienek euren kirolariei etxean edo euren kabuz lan egiteko gomendioa egin diete eta kirol jardueran zehar beharrezkoa denean musukoak jantzita eramatea.

Esaterako, Joxe Felix Solano Intza prestatzaileak aipatu digunez, pilotalekura banaka joateko gomendioa egin die pilotariei. "Ez dakigu zenbat iraungo duen etenaldiak eta eskuak mantentzeko beharrezkoa izango dute, batez ere, bigarren mailako seniorrek. Euren txapelketako bi jardunaldi geratzen dira eta sailkapenean buru dira".

Ostadar Ipar martxako kideek jakitera eman dutenez, hilabete honetan aurreikusitako zituzten



Udal instalakuntzak 21:00ak arte irekita egongo dira. TXINTXARRI

ikastaroak ere bertan behera utziko dituzte.

Kirol taldeek entrenamenduak berriro hasteko baimena dutenean jarraitzeko asmoa agertu dute.

Neurri berriei moldatzen

Kiroldegiko eta gimnasioetako ikastaroak, ordea, aurrera darraite moldaketa batzuk eginez.

Kirol Zerbitzuak Lasarte-Oriako Udal Kirol Instalazioetan egongo diren jarraibide berriak jakitera eman ditu.

Instalakuntza guztiak 21:00etan itxiko dira eta igerilekuaren kasuan, murrizketak konpentsatzeko, goizeko ordutegia 13:00ak arte luzatuko da.

Ordutegi murrizketak ikastaro batzuetan eragingo du. Kirol zerbitzuak kasuan-kasuko trataera izango dutela jakitera eman du eta ahal den neurrian hauekin jarraitu ahal izateko beharrezko modifikazioak egingo dira. Talde bakoitzarekiko hartutako erabakia zuzenean komunikatuko zaie partaideei.

Era berean, neurri berriek zehazten duten moduan, aldagela eta dutxak ezingo dira erabili. Salbuespen bakarra igerilekuaren aldagela eta igerilekuan sartu aurretiko dutxa izango da.

Horrez gain, kirol instalazioetan eta kirol jarduerak egin bitartean musuko erabiltearen derrigorrezkoa izango da, igerileku barnean izan ezik.

Iraia Iparragirre herritarrak Granadillaren aurka hasieratik jokatu zuen eta Logroñon, 88. minutuan sartu zen zelaira.

Buelta eman

Igandean, Añorgan, partidari buelta ematea lortu zuen Javi Solchagaren taldeak. Oiarzun jarri zen aurretik eta gutxira Izaskun San Anizeto herritarrak partida berdindu zuen.

Bigarren zatian, Añorga KKE erasoan fin ibili zen eta hiru gol egin zituzten. Azken emaitza, 4 eta 1eko izan zen.

Eta Logroñesen aurka arantza kendu ahal izan du asteazkenean talde txuri-urdinak.

Atsedena dirira husnako berdinketarekin iritsi arren, bigarren zatian Franssiren bi golek garaipea eman zioten Realari.

Puntuz puntu, sailkapeneko lehen postuetara

Real Sociedad taldeak partida batean kale eta bestean bale egin du aste honetan; Añorgak ez du huts egin

Txintxarri

Garaipenaren bidera itzuli da Real Sociedad taldea Iberdrola Ligan. Igandean Natalia Arroyoren taldeak atzera pausoa txikia izan zuen UC Granadillaren aurkako partidari; 1-2 galdu zuen Realak.



Promozio txapelketa jokatu duten pilotariak aurkezpenean. BAIKO PILOTA

Arteaga II.ak, Promozio mailako buruz burukoari hasiera

Txapelketako final laurdenetako partida jokatu du gaur, ostirala, Irunen, Zabalaren aurka

Txintxarri

Promozio mailako buruz buruko txapelketa aurkeztu zen, asteazkenean. Erasun, Urretabizkaia II.a, Aranguren, Elordi, Zabala, Egiguren V.a, Salaberria eta Axier Arteaga, Arteaga II.a lehiatuko dira azaroaren 28ko finalera iritsi eta txapela eskuratzeko.

Lehen hitzordua, gaur, ostirala izango da Irungo Urazu pilotalekuan. Bertan bi final laurden jokatu dira.

Lehenik Arteaga II.a herritarrak Zabala izango du aurrez aurre. Irabazleak, ez du asko itxaron beharko finalaurreko arerioa nor den jakiteko, jaialdi berean

erabakiko baita. Salaberria eta Erasunen arteko norgehiagokatik aterako da.

Berrikuntzak

Buruz buruko txapelketaren antzera, berrikuntzak izango ditu txapelketak.

Pasako marra sei eta erdiko koadroan jarriko da. Parte hartzaileek botileroak izango dituzte txapelketako partidetan beste enpresako pilotarien aurka jokatzeko dutenean eta botilero moduan, enpresako teknikariek bakarrik lagundu ahal izango dute. Gainera, ez da partidari atzeratuko.




BAT BASQUE TEAM

Bosgarren postua, Pauen

Munduko Kopako proba jokatu da Pauen (Frantzia). K1 modalitatean, Marie-Zelia Lafont frantsesak irabazi du proba eta Maialen Chourraut herritarra bosgarren geratu da. Finalerdian laugarren denbora onena egin zuen Chourrautek eta finalean, berriz, 120.30 segundo behar izan zituen ibilbidea egiteko —bi segundoko zigorra ezarri zioten epaileek, atetako bat ukitzeagatik—.

ZORION AGURRAK



Unai
Testua Zorionak maitia, muxu handi bat aitatxo eta amatxoren partetik.



Amaier
Zorionak politt hori, 12 urte dagoeneko! Aurtengoan egoera arraroa bada ere, guk zure eguna merezi duzun bezala ospatuko dugu. Infinitu maite zaitugu. Ekain, aitatxo eta amatxo.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurrrak eta
Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus helbidera,
eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ez ahaztu irudiaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrrak.

KOMIKIA



JAIOTAKOAK

Naira Lerchundi Pellejero. Urriaren 30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 13	GIL	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
LARUNBATA, 14	GANDARIAS-URIBE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 15	GANDARIAS-URIBE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 16	ACHA-ORBEA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 17	URBISTONDO	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 18	GANDARIAS-URIBE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 19	DE ORUE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:
943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

HILDAKOAK

Martina Intxausti Segurola. Azaroaren 12an.
Encarnacion Ruiz Sainz. Urriaren 31n.
Ana Fuentes Ciria. Urriaren 31n.
Florentina Arruti Jonsansoro. Urriaren 30ean.
Luis Mari Otegui Lazaro. Urriaren 30ean.

GUTUNAK

2021ean ere birziklatzaileak zigortuko ditu Lasarte-Oriako Udalak zabor-tasa finkoaren bidez

EGUZKI TALDE EKOLOGISTA

Lasarte-Oriako Udalak ezohiko osoko bilkura egin zuen joan den astean, eta bertan onartu zituen 2021ean indarrean egongo diren ordenantza fiskalak; udal zergak eta tasak, alegia. Zabor-tasari dagokionez, bi albiste daude, bata ona eta bestea, berriz, txarra, txisteetan bezala.

Albiste ona da zabor-tasa, tasa gehienak bezala, izoztuta geratuko dela, COVID dela eta herritarrak izaten ari diren zailtasunak arintzeko edo. Albiste ona kontsideratu beharko dugu batez ere azken urteotako joera guztiz kontrakoia izan dela kontuan izanda. Gogoratu azken urteotan zabor-tasa KPIren oso-oso gainetik igo dela. Esaterako, iaz KPIren igoera %1ekoa izan zen eta zabor-tasarena, berriz, %5ekoa, hau da, bost aldiz handiagoa.

Albiste txarra da PSOEek, duen gehiengoaz baliatuta, ezerezean utzi zituela EH Bilduk eta EAJ-k, bakoitzak bere aldetik, birziklatzaileak zabor-tasa finkoaren bidez ez zigortzeko egindako bi proposamen. Zehatz-mehatz, EH Bilduk 5. edukiontzia erabiltzen dutenentzako deskontu bat proposatu zuen; EAJ-k, berriz, erabiltzen ez dutenentzako errekaru bat. Bi proposamenok ezerezean utzita, 2021ean ere (eta 5. edukiontzia Lasarte-Oriari ezarri zutenetik laugarren urtez jarraian) birziklatzen

dutenek eta birziklatzen ez dutenek berdin-berdin ordainduko dute. Hori antiekologikoa ez ezik sozialki injustua ere bada, arduraz jokatzeko duten birziklatzaileak zigortzen dituelako, eta axolagabeak, berriz, saritu. Izan ere, birziklatzaileek, konpromiso gehiago hartzeaz gain, tarifa finkoaren bidez besteen axolagabekeria finantzatzeko dute. Eta hori Lasarte-Oriako Udalak espresuki hala erabaki duelako.

Udal gobernuak tasa finkoa ezartzeko erabiltzen dituen argudioek umekeriaren eta zinismoaren arteko nahasketa baten ondorio dirudite:

- Birziklatzaileentzako deskontua –diote– dagoeneko aurreikusita dago... baldin eta herrian, orokorrean hartuta, gaikako zabor-bilketan portzentaje jakin bat lortzen bada. Alabaina –eta hori ere aitortzen dute–, ez dago portzentaje hori lortzerik Udalak berak ezarri duen sistemarekin, hau da, Lasarte-Oria Gipuzkoan birziklatze-kontuetan azken putz izatera eraman duen sistemarekin.

- 5. edukiontzia erabiltzaile txartela izateak berak deskontu-eskubidea ematea “arriskutsua” izan daitekeela ere badiote... eta hori beharbada oso arrazoizkoa izan zitekeen... baldin eta Udalak berak berriaz erabaki izan ez balu txartelak edukiontzia irekitzeko eta bakar-bakarrik edukiontzia irekitzeko balio izatea. Hau da, Udalak berak erabaki zuen txartela ez lotzea 5. edukiontzia erabileraren jarraipena egitea ahalbidetu zezakeen inolako software-sistemarekin. Software hau

ez da zientzia-fikzioa, e? Hau da birziklatzaileei deskontua egiteko Gipuzkoako herrietan normalean erabiltzen den sistema. Adibidez, birziklatze-kontuetan batere aurrerazalea ez den Donostian bertan.

Joan den asteko osoko bilkuran zabor-tasa finkoaren inguruan izandako eztabaidatik zerbait positiboa ateratze aldera, esango dugu ematen duela PSOEek, hitzez behintzat, onartu duela (baten ordua!) Lasarte-Oriako birziklatze-kontuetan “arazo bat” baduela. Onartu bai, baina, aldi berean, jarraitzen du luzamenduetan, neurririk hartu gabe. Zabor-tasaren gaineko oinarritzko erabaki erraz hau ere “mahai tekniko” batzuetara bideratu du. Kontua da orain dela urtebete justu, alkateak “mahai tekniko” horiei berei buruz hitz egin zuela, baina, dirudienez, azken 365 egunotan ez omen du “mahai tekniko” horiek biltzeko deialdia egiteko astirik izan. “Oraingoan bai –diote–, mahai teknikoak hilabete honetan bertan biltzen hasiko dira”. Ea egia den. Hala ere, udal gobernuak, itxurakeriaz aparte –eta itxurakeria horren lekuko da egunotan egiten ari den propaganda-kanpaina–, birziklapena sustatzeko erakutsi duen interes falta agerikoak, “mahai” horiek eman ditzaketen fruituei buruz eszeptikoak izateko eskubidea eman digu.

Momentuz, hauxe da egia bakarra: 2021ean Lasarte-Oriako gutxi birziklatzen jarraituko du, baina birziklatzen duen gutxi hori meritu handiarekin birziklatuko du, udal gobernuak ez duelako batere erraztasunik ematen.

DAGOKIONARI



Askatasun parkean dagoen bizikleta garbitzeko guneko mahuka izorratua dagoela jakitera eman du herritar batek. Konpontzeko eskaera egiten dio dagokion erakundeari.

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKARIA

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. 634 278 198

Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900.

Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

ETXEBIZITZAK

EROSI

Apartamentu txiki bat bilatzen ari naiz erosteko, Lasarten. Logela batekin nahiko. Igoigailuarekin. Ez dut nahi atikoa ezta lofta ere ez. Nire telefonoa 660 552 353 da.

IKASTAROA

ESKARIA

Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Jatorrizko hizkuntza dut, eta esperientzia ere bai eskoletan, institutuetan eta helduentzako eskoletan. 691 630 313/bentley.ma@gmail.com

Txokoalden, tren geltoki zaharretan, bakaparta klaseak ematen ditut. tagoredoremi@gmail.com edo 678 071 041 (WhatsApp ez)

SALEROSKETA

SALDU

Bigarren eskuko Silver

Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.



NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA


Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

ARGAZKI LEHIAKETA



TXINTXARRI aldizkariak Gau Beltzako argazki lehiaketa jarri zuen martxan! Hemen duzue irabazlea. 197 bozkarekin. Zorionak! Sorta eder bat eskuratu du irabazleak!

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzzaileak
Julene Iraola eta Uxue Odriozola,
Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose
Lanchas, Iñigo Garcia, Igone
Mendizabal eta Lide Hidalgo.

Informatika zerbitzua
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 13

LASARTE-ORIA Erakusketa

Zurmailu Zurlanketa elkarteko kideek urtean zehar egindako lanen erakusketa ikusgai dago azaroaren 15era arte.

Antonio Mercero gunea. Asteazken zehar, 18:00etatik 20:00etara; larunbata eta igandeetan, 12:00etatik 14:00etara.

USURBIL Bertso antzerkia

Urpekakariak bertso antzerkia ikusteko aukera izango dute 6 eta 11 urte arteko haurrek. Sarrerak, aurrez 3 eurotan, Lizardin eta NOAUA!ren egoitzan. NOAUA!ren Kulturaldiko ekimena da. Sutegiko auditorioa, 18:00etan.

ANDOAIN Kontzertua

Petti bandak eta Melenas taldeak kontzertua eskainiko dute. Sarrera, 12 euro.

Bastero kulturgunea, 19:00etan.

LARUNBATA 14

LASARTE-ORIA Antzerkia

Txalo produkzioak *Losers* (Galtzaileak) lana taularatuko du. Sarrerak agortuta. Manuel Lekuona, 19:00etan.

USURBIL Filma eta kontzertua

Peru Galbeteren *Ura sartu zen* laburmetraia ikusi ahalko da. Ondoren, artistak *Nor zara zu?* diska aurkeztuko du. Sarrerak, aurrez 6 eurotan, Lizardin eta NOAUA!ren egoitzan.



LASARTE-ORIA Antzerkia. *Losers* (Galtzaileak) laneko protagonistak Manuel eta Sandra adinean aurrera doaz. Gizarteak adin horretarako markatutako baldintzarik ez dute betetzen (umerik ez, bikoterik ere ez eta diruz urri, etxebizitza bat erosteko aukerarik gabe...) Horregatik, euren buruak galtzailatzat dituzte eta aldatzeko esperantza handirik gabe bizi dira. Bakarti bizitzeari utzi nahi diote. Antza goibel bizi dira, baina pozik bizi nahi dute. Lortuko al dute bere helburua?

Manuel Lekuona kultur etxea, larunbata 14, 19:00etan.

NOAUA!ren Kulturaldiko ekimena da. Sutegiko auditorioa, 19:00etan.

IGANDEA 15

ANDOAIN Antzerkia

Laika haurrentzako antzerkia eskainiko du Cia. Obsidiana taldeak. Sarrera, 4 euro. Bastero kulturgunea, 17:00etan.

OSTEGUNA 19

LASARTE-ORIA Zinegoak

Bilboko Gaylesbitrans 17. Nazioarteko

Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiko lanak lehenengoz ikusi ahalko dira Lasarte-Orian.

Sei film labur ikusi ahalko dira, besteak beste, Arantza Ibarren *Mi pequeño samurai*. Film guztiak jatorrizko hizkuntzan eskainiko dira euskarazko eta gaztelaniazko azpidatizkiekin.

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguneko egitarauko ekimena da.

Manuel Lekuonako hitzaldi aretoa, 19:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Boonie bears: abentura historiaurrean
Igandea: 17:00.

ANDOAIN

BASTERO

Ane
Larunbata: 19:00.
Igandea: 19:00.
Astelehena: 19:00.

HERNANI

BITERI

Erlauntza
Larunbata: 19:00.
Igandea: 19:00.
Astelehena: 16:30.

Shin Chan en Australia

Larunbata: 16:00.
Igandea: 16:00.

LABURPENA

Bonnie bears: abentura historiaurrean

Zuzendaria: Leon Ding. **Gidoia:** Qin Wan, Rachel Xu. **Musika:** Roc Chen. **Herr.:** Txina (2019). **Ekoizpena:** Fantawild. **Iraupena:** 90 minutu.



Historiaurrean galduta

Boonie Bears: abentura historiaurrean filmaz gozatu ahalko da haur zinea atalean. Haurrei edo familia guztiari zuzendutako animaziozko pelikula euskaraz ikusteko aukera izango dute lasarteoriatarrek.

Vick egurgilea eta Briar eta Bramble hartzak protagonista dituen seigarren filma da. Oraingoan, Vick eta hartzak kobazulo bateko paretean aurkitzen duten zulo misteriozko batetik pasa eta iraganera bidaiatzen dira.

Ez dakite nola bueltatu eta, gainera, animalia erraldoiz inguratuta daudela ohartzen dira.

Hala ere, buruan gauza bakarra dute: bazkaria. Horregatik hirukoa banatu egingo da. Briarrek gerlari ausarta izan nahi duen Feifei otso gaztearekin egingo du topo. Bitartean, tribu batek Bramble eta Vick bahituko ditu eta tribuko liderra Vickerekin zeharo maiteminduko da.

Guztiak elkartu eta XXI. mendera itzuli behar dira. Lortuko ote dute edo historiarurrean geratuko dira? Hirukoak ez dio sekula horrelako abentura bati aurre egin.

Boonie Bears: abentura historiaurrean 2020an Zinema Euskaraz programak estreinatuko duen bigarren pelikula da.

"Irakurketari tartea egingo diogu, plazeretik"

INTZA ALKAIN 'HIZKI HOZKA' EGITASMOAREN DINAMIZATZAILEA

Etxeko txikientzat eta euren familiako kideentzat irakurketaz gozatzeko tartea atsegin bat eskainiko die Ttakun Kultur Elkartek, *Hizki hozka* egitasmoaren bidez. Intza Alkain herritarrek dinamizatuko du.

TXINTXARRI-ri azaldu dionez, irakurketa txoko bat egin nahi dute, haurrekin eta euren ahaideekin, eskolaz kanpo ere literaturari tartea bat eskaintzeko, plazeretik. "Ederki pasako dugu, familia giroan eta modu goxoan, egitasmoaren izenak adierazten duen bezala, hizkiei hozka eginez: irakurteaz gain, jolasak eta bestelako



jarduerak egingo ditugu saioetan: dantzatu, irakurritakoari buruz hausnartu, noizbehinka bakarka irakurtzeko tartea eman, eta abar".

istorioei garrantzia emango diete *Hizki Hozka* egitasmoan, baina atzetik datorren prozesu guztiari ere bai.

Alkainek azaldu du ikus-entzuleen adinera egokitutako literatura piezak eramango dituela *Hizki Hozka*-ren saioetara: poesia-liburuak, album ilustratuak, komikiak, eta beste genero batzuetako lanak ere bai. Den-dena ez da irakurtzea izango, ordea: "Istorioren berriak sortzeko tartea emango diet parte hartzaileei, sormenari irekitzeko bide bat emanez eta jolastuz".

Lau saio egingo dituzte hemendik eta urtea amaitu bitartean, ostegunetan beti: azaroaren 26an eta abenduaren 3an, 10ean eta 17an. Ttakunenea elkartean bilduko dira, eta gehienez hamar familiak parte hartu ahalko dute, pandemiaren egoeratik bete beharreko neurriak tarteko.

Artikulu hau irakurrita *Hizki hozka* egitasmoan izena emateko interesa duzenok, adi egon, datozen egunetan jakinaraziko baitu Ttakun KEK zein izango den apuntatu ahal izateko egin beharreko bidea. Bien bitartean, norbaitek egitasmoari buruzko informazio gehiago nahiko balu, deitu dezake 695 78 53 92 telefono zenbakira edo mezu elektronikoa bat idatzi eta aisia@ttakun.eus helbidera bidali.



TXAPA JASO



Noiz?

Osteguna 19	10:00-13:00	16:00-19:00
Ostirala 20	10:00-13:00	16:00-19:00

Non?

Okendo plazan
Eguraldi txarra bada, Loidibarren frontoian

Nola?

- Mahaiak abizenka egongo dira antolatuak.
- 2018an parte hartu zenutenok eta dagokizuen txapa ordutik duzenok ez duzue berria jaso beharrik.
- Gomendatzen dizuegu norberaren txapa jasotzeaz gain, hainbat kiderena ere jasotzea: etxekoena, lagunena...
- Egòerari dagokion prebentzio neurriak hartu dituzte antolatzaileek: garbiketa, dis-tantziak eta abarrak.



Photocallean argazkia
ateratzeko aukera izango da



@EusMaratoia



@EusMaratoia



euskaraldia_lasarteoria

LASARTE-ORIAN

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN
2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

IZENA EMAN!

www.euskaraldia.eus